

LABek Hezkuntza Saileko sukalde eta garbiketako langileen hitzarmena sinatu du 16 urteren ondoren

Azken urteetan hamaika mobilizazio, greba, salaketa egin ditugu Hezkuntza Saileko kolektibo feminizatuenaren eta lan baldintza prekarioenak dituenaren lan baldintzak errespetatu eta hobetu daitezen. Pribatizazio prozesu bortitzena jasan duen sektorea da, zerbitzuetako lan batzuk azpikontratatuta baititu sailak.

2018an lan baldintzak hobetzea lortu zuen LABek, mobilizazio eta greba dinamikari esker, eta gaur, urtarrilean eta otsailean lau greba egin ondotik, borrokak merezi duela argi utzi du. Besteak beste, soldata administrazio orokorreko langileekin ekiparatzea lortu du, sukaldean %9 eta garbiketean %6 igota; urteko jarduna sukaldeetako langileei 108 ordu eta garbiketako 120 ordu jaistea; sukaldeburuen eta garbiketa buruen kategoriak sortzea, zeinak kategoria horiek profesionalizatzea eta kolektibo guztia euskalduntzeko urratsak zehaztea ekarriko baitu.

Kategoria igoerak titulazioaren bidez parekatzea lortu da, baita 3 urteko zerbitzuen bidez gaitasun profesionala ziurtatuko dutenek ere. Ezin izango da jardun erdirako baino gutxiagorako kontratatu, orain arte 10 eta 15 orduko kontratu asko eskaintzen ziren arren. Kolektibo horretan ordezkapenak betetzeko egon den arazoetako bat konponduko da, ordezkoen araudi berria lan hitzarmenean txertatuta. Horrez gain, lizentzia eta baimenetan hobekuntzak jaso dira eta LABek sinatutako akordioa garatuz 60 urtetik gorako langileentzat lanaldiaren hereneko murrizketa zuzenean aplikatuko da eta lanpostu berriak sortzeko prozedura zehaztu da. Funtzioak eta betekizunak mahai teknikoan zehaztuko dira, eta ratioak murriztu dira.

Bestalde, Hezkuntza Sailak eta LABen artean sinatu zen akordio laboralean jasotako hainbat aldagai sinatu dira, besteak beste, behin-behinekotasun tasa ezingo da izan %5 baino handiagoa izan, eta hiru urtean behin lan eskaintza publikoa egingo da.

Era berean, pribatizazioari mugak jartzeko urratsak ere jaso dira, sukalde berriak egiten direnean, Hezkuntza Saileko langileak jarriko dira. Bertako langileak dituzten zentroetan, obrak direla-eta garbitu beharreko metro kopurua handitzen bada, langile propioekin kontratatuko dira; era berean, ratioen beherakadaren ondorioz kontratazio-premia berriak sortuko balira, langile propioekin egingo lirateke.

Horrenbestez, LABek sukalde eta garbiketean grebak bertan behera uzten ditu. Lehenengo indarra den kolektiboetako hitzarmenak sinatuz eta eskola publikoko lan baldintzak hobetuz, ikasleei ematen zaien hezkuntza kalitatea hobetu du, eskola publiko ardatz, euskal eskola publiko komunitarioaren bidean.